

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEAREN ARAUTEGIA UNIBERTSITATEKO IKASKETAK HASITA DITUZTEN IKASLEEK ESPEDIENTEA LEKUZ ALDATZEKO

Graduko Ikasketen Gestiorako Arautegia izango da erreferentziako arautegia unibertsitateko ikasketak hasita dituzten ikasleek espediente lekuz alda dezaten. Arautegi hori ikasturtero onartzen du UPV/EHUK.

Indarreko arautegiarekin bat etorrira, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Batzarrak, UPV/EHUn arautegi orokorra osatzeko asmoz, eta Akademia Antolakuntzako Batzordeak hala proposatuta, honako hau onartu zuen 2022ko uztailaren 21an egindako bileran:

Unibertsitateko ikasketak hasita baina amaitu gabe izanik UPV/EHUn sartu nahi duten ikasleek, baldin eta **Estatuko beste unibertsitate batetik edo unibertsitateko ikasketa ofizialetatik edo UPV/EHUko beste ikasketa batzuetatik badatoz**, lekualdaketa eskatu ahal izango dute, baldin eta onartuak izateko baldintza eta irizpide hauek betetzen badituzte:

UPV/EHUn jarraitzeko arauak betetzen dituzten eskaerak irizpide hauen arabera ebatziko dira:

- Lehenengo maila osoa edo 60 kreditu gaindituta izatea, baldin eta ikasketa horietarako plaza kopuru mugatua badago edo plaza guztiak ohiko prozeduraren bidez esleitu badira.
- Jatorriko ikasketak nagusiki ekonomia eta enpresaren arlokoak izatea. Gradu bikoitza egiteko eskaeren kasuan, jatorriko ikasketak gradu bikoitz berekoak izan beharko dira.
- Ikaslearen espedientea, gainditutako kreditu kopurua eta espedientearen batez besteko nota.

Ikastegiko zuzendaritzak onartu ahal izango duen lekualdaketa kopurua bateragarria izan beharko da lehenengo mailara sartzeko mugarekin eta irakats ahalmenarekin bateragarria bada, eskatzailearen jatorriko ikasketak ekonomia eta enpresa arlokoak badira, eskatzaileak UPV/EHUn jarraitzeko arauak betetzen baditu, eta gutxienez 36 ECTS kreditu baditu gaindituta.

Eskainitako plazak

Hauek dira lekualdaketa eskatu duten ikasleei eskainiko zaizkien plazak:

- Matrikulako plazen eskaintzaren % 10, gehienez, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduko eta gradu bikoitzetako lehenengo mailan, gehi prozedura arruntean esleitu gabe gelditutako plazak.
- Matrikulako plazen % 20, gehienez, ikastegiak eskaintzen dituen gainerako graduetako lehenengo mailan, gehi prozedura arruntean kasuan kasuko graduan esleitu gabe gelditutako plazak.

Muga horiek ez dira aplikatuko modu berean egoitzan eta ataletan, baizik eta kontuan hartuta bakoitzaren kupoak.

Lekualdaketa UPV/EHUn ikastegi batetik beste batera egin bada ikasketa berberekin jarraitzeko, erabilitako deialdiak espediente berrian jasota agertuko dira, baina, edozelan ere, horrelakoetan, ikasleak bermatuta izango ditu bi deialdi.

Dena dela, lekualdaketaren prozeduraz gainera, interesatuta dauden ikasleek berriz eman ahal izango dute izena UPV/EHUn ikasteko, unibertsitatara sartzeko prozedura orokorrean ezarritako epe eta datetan.

Ekonomia eta enpresaren arloko unibertsitate ikasketak atzerrian hasita dituzten ikasleek lekualdaketa eskatu ahal izango dute fakultatean ematen diren graduatarako, baldintza hauek betetzen badituzte:

- Baliokidetu edo aitortu daitezkeen lehenengo mailako 30 kreditu, gutxienez, aitortu beharko zaizkie fakultateak eskaintzen dituen ikasketetan.
- Ikastegiko zuzendaritzak onartu ahal izango duen lekualdaketa kopurua bateragarria izan beharko da ikasketen lehenengo mailara sartzeko mugarekin eta irakats ahalmenarekin.
- Eskaerak eskainitako plazak baino gehiago izanez gero, Akademia Antolakuntzako Batzordeak onartutako irizpide objektiboen arabera esleituko dira:
Eskatutako eta egindako ikasketen arteko antzekotasuna.
Ikaslearen espedientea, gainditutako kreditu kopurua eta espedientearen batez besteko nota.

Ikasle hauek ez dira onartuko bide honetatik fakultatean irakasten diren gradu bikoitzetan.

Egokitze Ikastaroa (Arabako eta Gipuzkoako atalak)

Ikastaro hau da Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua lortu nahi duten Enpresa Zientzietako diplomatuentzat.